



**Arartekoaren 2024R-3784-23 Ebazpena, 2024ko martxoaren 22koa. Honen bidez, Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio alda dezala kexagilearen behin betiko destinoa ezabatzeke erabakia eta mantendu dezala destino hori 2017ko irailaren 1etik jardun duen lanpostuan.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek (...) eskatu zuen Arartekoak esku hartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Irakasleen Kidegoko irakasle gisa zeukan behin betiko destinoa ezabatu zutela eta.

Ordura arte pertsona horrek XXXXX LHII ikastetxeko lanpostu honetan zeukan behin betiko destinoa: pedagogia terapeutikoaren espezialitatea, 1. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik ez, lanpostu berezia, zereginen ikaskuntzarako gela. Destino hori 2016-2017 ikasturtean deitu zen lekualdatze-lehiaketa batean esleitu zitzaion. Esleipenak 2017ko irailaren 1az geroztik sortu ditu ondorioak.

2023ko azaroaren 13an deitu egin zioten parte har zezan ikastetxe horretako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketek nor ukituko zuten zehazteko abiatutako prozesuan.

Dirudenez, prozesu horretan esan zioten ordura arte ikastetxean egon ziren mota horretako bi lanpostuak ezabatu zirela. Lanpostu horiek 2022-2023 ikasturteko lanpostuen zerrendan ageri dira, eta zerrenda urtarrilaren 24ko 10/2023 Dekretuaren bidez argitaratu zen modu ofizialean.

Halaber, kexagilearen esanetan, prozesu horretan ez zioten utzi ikastetxeko beste lanpostu bati atxikitzen, eta azkenean ezabatutzat jo zuten.

Ezabapena pertsona zerrenda soil batean agertu zen, eta zerrenda Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratu zen, onespelik gabe eta ebazpena aipatu gabe, esteka honetan: *"BH atxikipenak. EHAAAn argitaratuko den atxikipen-prozesuari buruzko informazioa"*. Ebazpen hau eman den egunean, oraindik prozesuaren emaitza ez da argitaratu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Kexagileak adierazi zuenez, 2023-2024 ikasturteko lanpostuen zerrendaren behin betiko proposamena ikasturtearen hasieran helarazi zioten, eta bertan ez ziren aldatzen bere behin betiko destinoaren ezaugarriak zeuzkaten bi lanpostuak. Beraz, ez zekien noiz gertatu zen ezabapena eragin zuen aldaketa.

Erakunde honek Hezkuntza Sailak bere web orrian ipini zuen 2023-2024 ikasturteko lanpostuen zerrendaren behin betiko proposamena aztertu zuen eta ikusi zuen kexagileak esana egia zela: berak aipatutako bi lanpostuak zerrendan zeuden eta haien ezaugarriak ez ziren ezertan aldatu, hau da, 2022-2023 ikasturterako modu ofizialean argitaratutako lanpostuenak berak ziren. Ebazpen





hau eman den egunean, oraindik 2023-2024 ikasturteko lanpostuen zerrenda ez da argitaratu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Gainera, kexa-idazkian adierazten zenez, erabaki administratibo horren ondorioz kexagileak parte hartu behar izan zuen Hezkuntza Sailak 2023-2024 ikasturtean deitutako lekualdatze-lehiaketan, nahiz eta lanpostuaren ezabapena artean modu ofizialean argitaratu gabe egon eta hura eragin zuten arrazoi zehatzen berri ez eduki.

2. Arartekoak laguntza eskatu zion Hezkuntza Sailari: informazioa eskatu zion kexa-idazkian azaldutako gertaerez eta kexagilearen behin betiko destinoa ezabatzeko arrazoiez.
3. Hezkuntza Sailak ez zuen erantzun ezarritako epealdiaren barruan. Hori ikusita, erakunde honek beste errekerimendu bat bidali behar izan zion Hezkuntza Sailari, eta ondoren txosten bat bidali zion Arartekoari. Haren arabera, behin betiko destinoa ezabatzeko arrazoa lanpostuaren aldaketa izan zen: *“plaza izaera bereziko plaza bihurtu zen, zereginen ikaskuntzarako gelako pedagogia terapeutikoko plaza baitzen.”*

Orobat, txosten horretan adierazten zenez, lanpostuen zerrenden aldaketek ukitutako pertsonak zehazteko prozesuaren araudiak ez du aukerarik ematen lanpostu bereziak erabiltzeko berriz atxikitzeko fasean, ***“izan ere, lanpostu horiek lehiaketa espezifiko baten bidez bete ohi dira.”***<sup>1</sup>

Horregatik, kexagilea prozesutik ezabatu zuten eta ez zuen eduki aukerarik behin betiko destinoaren ezaugarri bereko lanpostua eskuratzeko; lanpostu hori, administrazioaren esanetan, berezizat jotzen zen orduan.

Txostenean berriz ere adierazten zen (...) LHII ikastetxeko pedagogia terapeutikoko lanpostu bakarrak bereziak direla, zereginen ikaskuntzarako gelakoak baitira.

Azkenik, honako hau adierazten zen:

*“Bide batez, gogorarazten dizuegu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea dela interesdunek administrazio publikoekin dituzten “ad extra” juridikoetan duten legezko bidea, eta prozedura horrek defentsarako beharrezko baliabideak dituela administratuek beren eskubideak balia ditzaten.*

*Dagokigun kasuan, kexaren sustatzaileak erreklamazio-idazki bat aurkeztu zuen 2023-2024 ikasturteko atxikipen-prozesuaren aurka, eta Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 16ko Ebazpenaren bidez ezetsi zen. Ebazpen horretan emandako erantzunarekin ados ez badago, [kexaren sustatzaileak] 2024ko otsailaren 19ra arteko epea izango du ezesteko erabakiaren aurka gora jotzeko errekurtoa jartzeko.”*

<sup>1</sup> Hitzak erantzun-txostenean bertan nabarmenduta daude.





4. Hain zuzen ere, kexagileak prozesuan aurkeztu zuen erreklamazioa ezetsi zuen ebazpenaren kopia helarazi zion erakunde honi. Funtsean, ebazpen horren oinarria bat zetorren Hezkuntza Sailak erantzun-txostenean adierazitakoarekin.
5. Hori guztia ikusirik, Arartekoaren iritziz ezinbestekoa zen jakitea zergatik eta noiz bihurtu zen berezi kexagilearen lanpostua. Horregatik, aplikatu beharreko araudi orokorraren inguruko gogoeta egin ondoren (ebazpen honen beste atal batean azalduko da), Hezkuntza Sailari eskatu zion azal ziezazkiola honako hauek:
  - Zer aldatu den, zehatz-mehatz, lanpostuaren eduki funtzionalean lanpostu bereziaren kategoriara aldatzeko.
  - Noiz gertatu diren aldaketa horiek lanpostuan. Gainera, zer tresnaren bidez egin diren aldaketak eta nola jakinarazi zaizkien ikastetxeari eta lanpostuaren titularrari.
  - Zer ondorio izan dituzten aldaketa horiek, zehatz-mehatz, aldatutako lanpostuari atxikita dagoen pertsonaren irakaskuntzako egitekoetan eta lanetan.
  - Noiztik izan den kexagilearen behin betiko destinoko lanpostua zereginen ikaskuntzarako gela batekoa.
  - Hezkuntza Sailak pedagogia terapeutikoko lanpostu berezi hori berariazko lekualdatze-lehiaketa batean edo lekualdatze-lehiaketa orokorrean eskainiko duen.
  - Zein diren pedagogia terapeutikoko lanpostu berezia betetzeko baldintza bereziak.
  - Ea lanpostu berezi batean aritzeak sortzen duen lanbide-ondoriorik berezia ez den lanpostu batean aritzeak sortzen ez duenik.

Beste alde batetik, kexagileak prozesuan aurkeztutako erreklamazioa ezetsi zuen ebazpenaren kontrako gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko 2024ko otsailaren 19ra arteko epealdia zeukala eta, erakunde honek Hezkuntza Sailari eskatu zion argitu zezala nolako birtualtasuna eta nolako aplikazio administratiboa edukiko zituen gora jotzeko errekurtsio horrek, prozesuaren emaitza modu ofizialean argitaratzen zenean aurkeztu ahal izango zen gora jotzeko errekurtsioaren aldean, artean ebazpena argitaratu gabe baitzegoen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

6. Hezkuntza Sailak bi erantzun-txosten bidali zituen. Oso argiak dira espedientearen tratamendurako, eta, horregatik, erakunde honek uste du osorik txertatu behar direla hemen<sup>2</sup>:

---

<sup>2</sup> Arartekoak gaztelaniazko txostenak baino ez dauzka.



**“INFORME DE CONTESTACIÓN AL ARARTEKO REFERENCIA: 3784/2023/QC**

*En contestación al escrito del Ararteko relativo al expediente de queja 3784/2023/QC tramitado a instancia de [la persona promotora de la queja], se comunica lo siguiente:*

*Respecto de las cuestiones 1º, 2º y 3º, se adjunta informe de la Directora para la Diversidad en inclusión educativa.*

*Respecto de las cuestiones restantes, se informa:*

***Desde qué fecha el puesto que constituía destino definitivo de la [la persona promotora de la queja] formaba parte de un Aula de Aprendizaje de Tareas.***

*Según consta en el expediente de la [la persona promotora de la queja], desde que obtuvo destino definitivo el 01/09/2017, ya figura como puesto que formaba parte de un Aula de Aprendizaje de Tareas.*

***Si el Departamento de Educación va a ofrecer el puesto de Pedagogía Terapéutica de carácter singular en un concurso de traslados específico o en el concurso de traslados general.***

*Los puestos de Pedagogía Terapéutica de carácter singular se ofrecen en el concurso de traslados general convocado por Orden de 22 de noviembre de 2023 del Consejero de Educación.*

***Cuáles son los requisitos específicos de provisión del puesto de trabajo de Pedagogía Terapéutica de carácter singular.***

*No tiene ningún requisito específico*

***Si el desempeño de un puesto de trabajo de carácter singular ocasiona algún efecto profesional diferente al desempeño de un puesto de trabajo que no tenga ese carácter.***

*No tiene efecto profesional diferente”*

**“INFORME DE LA DIRECCIÓN PARA LA DIVERSIDAD E INCLUSIÓN EDUCATIVA EN RELACIÓN A LA NATURALEZA SINGULAR DE LAS PLAZAS DE PROFESORADO PT DE LAS AULAS DE APRENDIZAJE DE TAREAS (ARARTEKO 3784/2023/QC)**

*En relación a la solicitud de información del Ararteko (3784/2023/QC), la Dirección para la Diversidad e Inclusión Educativa señala que las funciones y tareas docentes de las plazas de profesorado de Pedagogía Terapéutica (PT) de aulas de aprendizaje de tareas (AAT) no se han modificado y están detalladas en la Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación de 30 de julio de 1998 (BOPV de 31 de agosto).*

*La consideración de singular de estas plazas, por tanto, no se ha debido a un cambio en sus funciones y tareas, sino que ha tenido su origen en el intento de afrontar las consecuencias negativas de la falta de estabilidad del profesorado PT de estas aulas.*

*En los últimos años la rotación del profesorado en general ha sido altísima, en la mayoría de los centros apenas se mantenía estable el 50% del claustro de un curso al siguiente. Esta circunstancia afectaba igualmente al profesorado PT de las AAT.*

*Sin embargo, el alumnado de las AAT es alumnado altamente vulnerable, que tiene necesidades educativas especiales de intensidad moderada y alta, y que necesita cierta continuidad en la atención que recibe.*

*Para evitar la alta rotación del profesorado PT de las AAT, profesorado tutor que elabora y pone en práctica el proyecto curricular del aula y el plan de atención de cada uno de los alumnos y alumnas, se comenzó a proveer temporalmente estas plazas mediante comisión de servicios. Así se pretendía dar estabilidad a los proyectos para el aula propuestos por el profesorado interesado en ellas. Consecuentemente, las plazas de PT de las AAT se fueron convirtiendo en plazas singulares*



*En estos momentos, no obstante, la situación es diferente. Se ha logrado estabilizar considerablemente la plantilla de los centros educativos, por lo que nos encontramos con la necesidad de iniciar un proceso de reflexión que establezca de forma clara los criterios por los que considerar singulares estas u otras plazas.”*

## Gogoetak

1. Urtarrilaren 24ko 10/2023 Errege Dekretuak<sup>3</sup> Hezkuntza Sailaren ikastetxeetako 2022-2023 ikasturteko lanpostuen zerrenda onetsi zuen.

Testu horretako datuen arabera, ikasturte horretan kexagilearen lanpostua XXXXX ikastetxean zegoen (orduan (...) LHII zen): pedagogia terapeutikako lanpostua, zereginen ikaskuntzarako gela batean; ordurako lanpostu bereziaren kalifikazioa zeukan.

2023-2024 ikasturteko lanpostuen zerrendaren behin betiko proposamenean lanpostu horren ezaugarriak eta kalifikazioa aurrean aipatutako dekretukoak berak ziren; beraz, kexagilearen lanpostuan ez zen ezer aldatu proposamen horretan.

2. Apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuak<sup>4</sup> zenbait irizpide ezartzen ditu lanpostuen zerrendetan egiten diren aldaketek nor ukitzen duten zehazteko, eta horretarako prozedura eta horren ondorioak finkatzen ditu. Hain zuzen ere, 2. artikuluan<sup>5</sup> honako hau ezartzen da:

*“Honako Dekretu honen edukiak, Lanpostuen Zerrendak aurrez egindako azken Lanpostuen Zerrendan egindako lanpostuen eraketa aldatzen dueneko Ikastetxe batean behin-betiko lanpostua duten Maisu/Maistrek, hauek karrerako funtzionario edo lan-legepeko irakasle finko izanik.”*

Kasu honetan, kexagilearen behin betiko destinoa ezabatu zen prozesuak 2023-2024 ikasturterako sortu zituen ondorioak; beraz, dekretu horretan ezartzen denari jarraikiz, prozesuan 2022-2023 ikasturteko lanpostuen zerrenda eta 2023-2024 ikasturteko lanpostuen zerrenda alderatu behar ziren.

Kontua da ezen, aurrean adierazi den bezala, lanpostuen zerrenda bien artean ez dagoela inolako aldaketarik kexagilearen lanpostuan; beraz, lanpostuen zerrendetako aldaketek nor ukitzen duten zehazteko prozesuan ez da gertatu kasu honetan eta data horretan aplikatzeko gertatu beharrekoa.

<sup>3</sup> 10/2023 Dekretua, urtarrilaren 24koa, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa, lanbide-heziketa, hizkuntza-irakaskuntzak, arte-irakaskuntzak, musika-irakaskuntzak, kirol-irakaskuntzak, urrutiko hezkuntza eta helduen hezkuntza ematen duten Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoetako lanpostuen zerrenda onartzen duena, irakaskuntza horietako lan-legepeko irakasleentzat eta irakasleen kidegoetako funtzionarioentzat gordeta.

<sup>4</sup> 81/1996 Dekretua, apirilaren 16koa, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan Haur-hezkuntza, Lehen Mailako Hezkuntza, Helduen Hezkuntza Iraunkorra eta Hezkuntza Bereziko mailatan Lanpostuen Zerrendetako aldaketek ukitzen dituzten maisu/maistrak zein diren zehazteko irizpideak finkatzen dituena.]

<sup>5</sup> Guk azpimarratu dugu.



3. Hezkuntza Sailak bere txostenean emandako erantzunaren arabera, ez dago baldintza berezirik berezitzat jotzen diren lanpostuak betetzeko, eta lanpostu horiek ez dute inolako lanbide-ondoriorik sortzen.

Horrenbestez, esan daiteke lanpostu bereziak berezitzat jotzen ez diren ezaugarri bereko gainerako lanpostuak bezalakoak dira, bai betetzeko moduari dagokionez, jarduteko baldintzei dagokienez, bai ondorioei dagokienez.

Gainera, Hezkuntza Sailak adierazten du pedagogia terapeutikoko lanpostu bereziak ez direla eskaintzen berariazko lekualdatze-lehiaketetan, baizik eta lekualdatze-lehiaketa orokorretan, hau da, gaur egun abian dena bezalakoetan.

Beraz, lanpostu horiek behin betiko destino modura esleitu daitezke kexagileak orain ezabatu den lanpostua eskuratu zuen lekualdatze-lehiaketa bezalako prozesu orokorretan.

Honetaz ari garela, gogora ekar daiteke Hezkuntza Sailak lanpostu berezi horiek lanpostuen zerrenden aldaketek ukitutako pertsonak zehazteko prozesuko berriz atxikitze fasean ez erabiltzeko eman duen argudioa dela lanpostuok berariazko lehiaketen bitartez betetzen direla, hain zuzen ere.

Ikusi denez gero ez direla horrela betetzen, eta kontuan edukita lanpostuen ezaugarriak berberak direla (bereziak izatea ez beste guztiak; hori geroago aztertuko da), erakunde honen iritziz ez dago inolako eragozpenik lanpostuen zerrenda berrian lanpostu bat berezitzat jotzen denean behin betiko destinoa berezia ez den lanpostu batean eduki duten pertsonak zuzenean eskuratu ahal izateko ezaugarri bereko lanpostu bereziak lanpostuen zerrenden aldaketek ukitutako pertsonak zehazteko prozesuko berriz atxikitze fasean.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz Kanpoko Irakasleen Kidegoen Legeak<sup>6</sup> 25. artikuluan ezartzen du zergatik mugiarazi daitezkeen karrerako funtzionarioak esleituta daukaten lanpostutik.

Artikulu horren 3. apartatuan honako hau ezartzen da:

*“Lehiaketa bidez lanpostua lortzen duten funtzionarioak lanpostuz mugiarazi ahal izango dira, zenbait kasutan, gerora sortutako arrazoi hauetako bat gertatzen denean: lanpostu-zerrenden bidez edo haietan aurreikusita, lanpostuaren edukia aldatzea eta horrek deialdiaren oinarri izan ziren inguruabarrak aldatzea, edo argi eta garbi egiaztatuta geratzea funtzionario horrek lanpostuari dagozkion eginkizunak eraginkortasunez betetzeko gaitasunik ez duela eta haren errendimendua eskasa dela. Horretarako espedientea izapidetu eta langileen ordezkari-organismoak txostena egin ondoren, izendapena egin zuen organoaren ebazpen arrazoituaren bidez gauzatuko da lanpostu-aldaketa.”*

<sup>6</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoen Legearen testu batagina, irailaren 21eko 4/2023 Legegintzako Dekretuak onartzen duena.



Artikulu horren 4. apartatuan ezartzen denaren arabera, lanpostu baten atxikipena galduko da lanpostua ezabatzen denean.

Espediente honetako kasuan, kexagilearen behin betiko destinoa zen lanpostua ez da ezabatu, 2023-2024 ikasturtean 2022-2023 ikasturteko ezaugarri berekin baitago.

Horregatik jakin nahi izan zuen Arartekoak kexagilearen lanpostuaren eduki funtzionala ezertan aldatu zen eskaintako irakaskuntza-motari dagokionez, ikasle-motari dagokionez, gelari dagokionez, eduki pedagogikoei edo antolakuntzakoei dagokienez edo, laburbilduta, lekualdatze-lehiaketan lanpostua pertsona horri esleitzeko kontuan hartu ziren alderdietako bat aldatu dela pentsaraz dezaketen inguruabarretako bati dagokionez, aurrean txertatutako artikuluan adierazten denaren ildotik.

Hala ere, Hezkuntza Sailak berak adierazi du kexagilearen lanpostua zereginen ikaskuntzarako gela batean zegoela 2016-2017 ikasturteko lekualdatze-lehiaketan esleitu zitzaionean eta harrezkero zereginen ikaskuntzarako gela batean egon dela.

Halaber, Hezkuntza Sailak berak esan du zereginen ikaskuntzarako geletako pedagogia terapeutikoko lanpostuetako irakaskuntzako egitekoak eta lanak ez direla aldatu eta 1998an argitaratutako araudi batean zehazten direla.

Gainera, Hezkuntza Sailak esan duenez, plaza horiek ez dira berezitat jo egitekoak eta lanak aldatu direlako, baizik eta gela horietako pedagogia terapeutikoko irakasleen egonkortasunik ezaren ondorio negatiboei aurre egin nahi izan zaielako.

Ondorioz, argi dago kexagilearen lanpostuaren eduki funtzionalean ez dela izan inolako aldaketarik aplikatu beharreko legeriaren arabera lanpostutik mugiarazteko erabil daitekeenik.

5. Hezkuntza Sailak bidalitako txosteneko azalpenaren arabera, lanpostu horiek berezitat jotzeko arrazoia izan da zereginen ikaskuntzarako geletako irakasleen artean antzeman den txandakatze-tasa handiari aurre egiteko neurriak ezarri behar zirela, egoera hori kaltegarria baitzen ikasleentzat, arretan jarraitasuna behar dute eta.

Horren ildotik, Hezkuntza Sailak esan du lanpostu horiek aldi batez zerbitzu-eginkizunekin betetzen hasi zirela; izan ere, horrela irakasle interesdunek hartzen zituzten lanpostuak eta egonkortasuna sortzen zen. Horregatik bihurtu ziren berezi lanpostu horiek.

Erakunde honek ontzat ematen du Hezkuntza Sailak irakaskuntza-talde egonkorrak sortu nahi izatea, kontuan harturik irakaskuntza horietan, Sailak







berak dioen bezala, irakasle inplikatuak eta iraunkorrak behar direla eta ezinbestekoa dela taldeek ikasturtez ikasturte lanean jardutea.

Hala ere, jasotako txostenean Hezkuntza Sailak ez du azaltzen zer egin daitekeen lanpostu bat berezitzat joz gero irakaskuntza-taldean jarraitasuna bermatzeko, Beraz, erakunde honek ezin izan du hori aztertu, baina, pentsatzen du egin dena eraginkorra izango zela helburua lortzeko, Hezkuntza Sailak adierazi duen bezala.

Amaieran, Hezkuntza Sailaren txostenean adierazten da ikastetxeetako plantilla nahiko egonkortu direla eta orain hausnarketa-prozesua abiarazi behar dela plaza horiek edo beste batzuk berezitzat jotzeko aplikatuko diren irizpideak finkatzeko.

Horrenbestez, sensu contrario, pentsatu behar da orain arte ez direla argi zehaztu lanpostuak berezitzat jotzeko irizpideak, zeren eta, jarduketetan ikusi den bezala, kalifikazio hori ezartzeko arrazoi bakarra lanpostu horietako irakasleak egonkortu nahi izatea izan baita, ez lanpostuen eduki funtzionalen edo ezaugarrien arteko desberdintasunak.

Nolanahi ere, espediente hau izapidetzeak argi erakusten du Hezkuntza Sailak zereginen ikaskuntzarako geletako lanpostuak berezitzat jotzearen ondorioetako bat izan dela ikastetxeko langile egonkorrena zenaren behin betiko destinoa ezabatzea.

Hori ez dator inondik ere bat Hezkuntza Sailak berak lanpostua berezitzat jotzeko adierazitako asmoarekin; beraz, kexagilearen behin betiko destinoa ezabatzeko beste arrazoirik ez dagoenez, hel daitekeen ondorio bakarra da erabakiak ez daukala inolako oinarririk.

6. Lekualdatze-lehiaketa batean, beste pertsona batzuekin lehiatzen, lortutako behin betiko destinoa ezabatzeak ondorio garrantzitsuak dauzka horretan ari den pertsonarentzat. Horregatik, hori gertatuz gero, gertaera eta arrazoi objektiboak eta ondo zehaztuak izan behar dira tarteko, eta baliabide egokien bitartez argitaratu behar dira.

Kasu honetan, kexagileak lehen lanpostu baten behin betiko jabetza zeukan eta orain, ezabapenaren ondoren, behin-behinean ari da eta beste lekualdatze-lehiaketa batean hartu behar du parte.

Beste alde batetik, orain arte haren behin betiko destinoa izan den lanpostua hutsik eskaintzen da lekualdatze-lehiaketan, baina ez da ahaztu behar norgehiagoka-prozesua dela eta ezin dela ziurtatu hark lanpostu horren adjudikazioa berriro jasoko duenik.

Nolanahi ere, lanpostu hori berriz berari adjudikatzen bazaio ere, behin betiko azken data aldatuko da, 2017tik 2024ra pasatuko baita, eta prozesu hori







guztia egin ondoren aurreko lanpostuaren ezaugarri berak (are bereziaren kalifikazioa ere) dauzkan lanpostu bati atxikita geratuko da.

Lanposturik adjudikatzen ez bazaio, behin-behinekotasunean geratuko da eta ikasturte hasierako adjudikazio-prozesuan hartu beharko du parte irakaskuntzako beste lanpostu bat eskuratzeko, harik eta hurrengo batean deitzen den lekualdatze-lehiaketa batean behin betiko destinoa lortu arte.

Ikusten den bezala, ondorio larriak dira, eta erakunde honen ustez aurrean aipatu diren irizpideekin bat ez datozen jarduketa batzuen eraginez gertatu dira.

7. Beste alde batetik, Hezkuntza Sailak gogorarazi du interesdunek beren eskubideak baliatzeko eskura daukaten legezko bidea administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea dela. Hori dela eta, erakunde hau bat dator Hezkuntza Sailak adierazitakoarekin: administrazio prozeduran ezartzen diren eskubideak eta errekurtsioak erabili behar dira administrazioari bidezko uziak aurkezteko; halaber, Hezkuntza Sailak berariazko erantzun arrazoitua eman behar du legezko epealdiaren barruan interesdunek aurkeztutako kontuak ebazteko, eta horretarako erabilitako tresna jakinarazi behar du.

Nolanahi ere, aipatu den guztia ahaztu gabe, kontuan eduki behar da, halaber, ordenamendu juridikoan beste modu eta figura batzuk ere badaudela herritarren eskubideak bermatzeko administrazio publikoen jarduketan eta ez-egiteen aurrean.

Hain zuzen ere, kasu honetan, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak<sup>7</sup> ezartzen duenez, herritarrak agintari eta agintaritza-gehiegikerietatik eta Euskal Herri-Arduralaritzaren utzikerietatik babestea du xede Arartekoak; horretarako, Legeak ahalmena ematen dio Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeen egintzak eta ez-egiteak aztertzeke eta Zuzenbidearekin bat datozen ikertzeke, Autonomia Estatutuak eskumenak ematen dizkion gaietan.

Horregatik, lege horren 23. artikuluan ezartzen duenaren arabera, administrazio horiek Arartekoak eskatzen dizkien datu, agiri, txosten eta argibide guztiak eman behar dizkiote lehentasunez eta presaz.

Ilido beretik, 11. artikuluan ezartzen da Arartekoaren egitekoetako bat dela gomendioak egitea administrazio horiei legez kontrako edo bidegabeko egintzak zuzentzen saiatzeko edo haien zerbitzuak hobetzeko. Kexa-espeditente honetan horixe egin da.

8. Azkenik, Hezkuntza Sailak kexagileari eskaini zion gora jotzeko errekurtsioaren eta hark geroago, prozesuaren emaitza modu ofizialean argitaratzen denean, aurkeztu ahal izango lukeenaren arteko erlazioaren kontua dela eta, Hezkuntza

<sup>7</sup> 3/1985 Legea, otsailaren 27koa, Ararteko erakundea sortu eta arautzekoa.





Sailak ez zuen horretaz ezer adierazi Arartekoaren laguntza-eskaerari eman zion erantzunean; horregatik, erakunde honek ez dauka modurik azterketara aurrera eramateko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera

### GOMENDIOA

Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio alda dezala kexagilearen behin betiko destinoa ezabatzeko erabakia eta mantendu dezala destino hori 2017ko irailaren 1etik jardun duen lanpostuan.

